

## BATTERY-DROP

### Balorezko Proposamena

Nahiz eta gaur egun mugikor kargadore inalanbrikoak egon, edo zentro komertzialetan esaterako, eserleku batzuek entxufeak izan, bateriarik gabe geratzearen arazoak present jarraitzen du gure artean. Demagun, hiri handi batean zaudela oporretan zein lanean, zure etxe-bizitza denarengandik, urrun zaude, eta mugikorra itzaltzeaz dago bateria eskasia dela eta. Momentu hartan, zaila da irtenbide azkar eta eskuragarri bat bilatzea, hain zuzen ere, hori ez gertatzeko diseinatu dugu gure aplikazioa.

Gure aplikazioak “Battery-drop” du izena eta zerbitzu honen helburua, mugikor batetik bestera, bateria pasatzeko aukera ahalbidetzea da. Zaila edo ezinezkoa dirudien arren, oso prozesu sinple eta azkarra da. Beharko zenituzkeen baliabide bakarrak, inguruko pertsona bat, (izan ezaguna edo zurekin bateria partekatze prest egongo den edonor) eta bai zure, bai haren mugikorrak dira. Segidan, 4 urrats eman beharko dituzu:

Hasteko, zure mugikorraren jakinarazpen-panela ireki, non hemen ikonoak agertuko zaizkizun. Ikur haien artean “Power-drop wireless”-enari eman beharko zenioke, prozesua aktibatzen joan dadin. Ikono hori ikusgai ez baduzu, beste aukera batera jo dezakezu: lehenik eta behin, ezarpenetara joan, hemen barruan, bateria eta gailu sailaren barruan sartu, segidan bateria (soilik), eta azkenik “Partekatu bateria” botoiari eman prozesua guztiz aktibatzeke. Faltan den azken pausoa, eta gure helburua betetzea ahalbidetuko ligukena, zure ondokoaren mugikorra eta zurea, elkarren kontra jartzea izango litzateke, atzealdea konkretuki, izan ere, bateria bertan dago kokatuta. Bi gailuak elkar konektatzen direnean, notifikazio txiki bat helduko zaizu, abisu gisa, dena prest dagoela jakinarazteko. “Onartu” botoiari sakatu, eta aplikazioak bere zeregina egingo luke.

Behin bateria nahikoa partekatu dela iruditzen bazaizu, bi mugikorraren arteko deskonexioa edo prozesua etetea, hastearena baino askoz ere azkarragoa da. Egin behar den gauza bakarra, bi mugikorrak elkarrengandik urruntzea da. Segidan, gailuen bi jabeen notifikazio bat helduko zaie non “deskonektatu gailuak” azalduko den, sakatu “bai” eta prozesua erabat amaituta geratuko litzateke.

Urratsak alde batera utzita, gure berezitasuna azalerazi nahi dugu. Normalean, “App-Store” gunean, zenbait aplikazio deskargatzeak, diru kopuru txiki bat eskatzen du, beste hitz batzuetan esanda, zure kreditu txartelaren zenbakia jarri beharko zenuke hura erosteko. Ez dira prezio altuak izaten 1,99€, 0,99€... Hala eta guztiz ere, ordaindu egin behar dira, eta edonork egingo luke aplikazio dohain baten alde, ordaindu behar den batenaren baino. Horixe da gure berezitasuna, mugikor guztietan egongo da eskuragarri zein erabilgarri eta ez da inongo dirurik ordaindu beharko hasiera batean. Gero, aplikazioaren barruan, subskripzio bat eskatuko zaio bezeroari eta hilabeteko ordainketa bat eginez, “premium” atala ahalbidetuko zaio. Atal honek bere izenak dioen bezala, hainbat pribilegio eskainiko dizkio bezeroari, zein “premium” ez denak, ez dituen edukiko: karga azkarrago bat eta 2 pertsona baino gehiagok, gehienez lau, aldi berean kargatzeko aukera. Aplikazioa dohain izateko baldintza bakarra, 2 pertsonen artean partekatu behar denez bateria, bi pertsonen aplikazioa deskargatuta izatea izango litzateke.